

SIM PLI CISSIMUS ●●●

Fritz Grunbaum,
Kurt Gerron,
eta Werner Fink gogoan

Egilea eta zuzendaritza
Patxo Telleria



TARTEAN TEATROAK

Aurkezten du

SIMPLICISSIMUS

SIMPLICISSIMUS UMOREZKO KABARETA da

umorearen mugak aztertzen dituena.

Omenaldi bat da haien lana askatasun osoaz egin nahi izateagatik jazarpena sufritu eta sufritzen duten komikoei.

SIMPLICISSIMUS KABARET MUSIKALA da

zuzenean antzeztu, kantatu eta jotzen duten musikari-aktoreekin.

SIMPLICISSIMUS XXI. MENDEKO KABARETA da

erroak sakonki erroturik dituelarik XX. mendeko Europako gerrarteko garaian.

ESTREINALDIA: 2019KO AZAROAREN 26 ETA 27AN ARRIAGA ANTZOKIAN

Dramaturgia egilea eta zuzendaritza

Patxo Telleria

Aktoreak: Olatz Ganboa, Ylenia Baglietto eta Getari Etxegarai

Musikariak: Adrian Garcia de los Ojos

SIM PLI CISSIMUS ● ● ●

Simplicissimus XVII. mendeko Alemaniar nobela pikareskoaren izenburua da, non Hogeitamar Urtetako Gerra-ren izugarrikeriak kontatzen diren umore klabean. Gerrarteko Cabaret baten izena ere izan zen.

Lan honen muina, gerrarteko hiru alemaniar komikoen bizitza ikaragarri eta ederra dira: Fritz Grunbaum, Kurt Geron eta Werner Fink.

Hiru komiko hauen historia Nazien terrore eta konzentrazio esparruekin estuki loturik dago. Baina ez dugu naziei buruzko istorio bat kontatu nahi, ez eta konzentrazio esparruei, ez eta juduen arazoari buruzkoa.

Benetako gertaera historikoen erreferentziak baztertu gabe, Simplicissimus ESPAZIO eta DENBORAREN mugak gainditzen ditu. Ez ditugu gertaerak kontatu nahi iraganeko pasadizua bailiran, berriro gertatu daitekeen zerbait bezala baizik.

HIRU KOMIKO KONZENTRAZIO ESPARRUETAN



FRITZ GRÜNBAUM

Fritz Grünbaum Berlingo cabaret giroaren komikorik ospetsuenetakoa zen. Hitlerren kontrako kritika egiten zuen. 1938ko martxoan egin zuen bere azkeneko agerraldia “Simplicissimus” izeneko Cabaret-ean. Handik gutxira atxilotua izan zen. Konzentrazio Esparruan batzuetan SS-ko gizonen aurrean antzeztu behar izan zuen. Soldaduak dibertitzen ez baziren, kaztigatu egiten zuten.

1940ko Urteberri bezperan, Fritz Grünbaum-ek bere azken antzezpena egin zuen. Dachau-ko esparruan izan zen. Larriki gaixotuta zegoen, baina dibertsio amari bat eskeini nahi izan zien bere presokideei, azkeneko aldiz. Handik gutxira bere burua hiltzen saiatu zen, baina erparruko zaindarien galerazi zioten. Bi aste beranduago hil zen.



KURT GERRON

Kurt Gerron Alemaniako artistarik ospetsuenetakoa, bere irudia estuki loturik dago “Brown”-ekin, Bertold Brecht-en “Hiru zentabotako Opera”-ko polizi buruarekin, eta bere kanturik ezagunenarekin: “Macky the knife”.

Bere antzezlan batzuetan Hitler eta SA-ren iseka zuzena egiten zuen.

Laister alde egin behar izan zuen, eta Holandara joan zen. Bertan atxilotua izan zen, eta Theresienstadt izeneko konzentrazio esparrura eramana.

Naziek eskabide bat egin zioten: propaganda pelikula bat errodatzea, “Fhurer-ek hiri bat oparitu die juduei” izenarekin. Gerron eta pelikulan parte hartu zuten guztiak Auschwitz-era deportatuak izan ziren handik gutxira, eta pelikula bukatu eta editatu zen zuzendariaren presentziarik gabe.

Kurt Gerron Azaroaren 15ean hil zuten



WERNER FINK

Werner Fink umorearen mugen maisurik handienetakoa izan zen. Naziaren sistema politikoaren kontrako kritikarik ausartenak egin zituen komiko honek, baina harrigarria bada ere, moldatu egiten zen zigorretik libratzeko, "lerroen arteko umorea"-ren teknikarekin.

Behin atxilotu zuten, baina Göring-en maitale bati esker, aktorea bera ere, askatu zuten.

Lanean jarraitu zuen, eta agintariek gero eta estuago zelatatzen zuten. Behin betirako atxiloketa gertu zegoen, eta berak bazekien, beraz aurreranzko ihesaldia egitea erabali zuen, armadan sarturik.

Bizirik iraun zuen gerra osoan, eta gerra ostean bere karrera jarraitu zuen, ironia berberaz.

Bertolt Brecht-ek 1947ean bere poema «Eulenspiegel überlebt den Krieg» dedikatu zion: («Eulenspiegel bizirik irten da gerratik»)

SIM PLI CISSIMUS ● ● ●

LAN TALDE ARTISTIKOA

SIMPLICISSIMUS ez da kabaret historiko bat, ez dago denbora edota espazio jakin bati loturik. Horregatik, ideiaen oinarri historikoan dauden komikoak gizonaezkoak baziren ere, Kabaret honetako pertsonaiak emakumezko antzezleek gorpuztuko dituzte, tratamendu historizistatik edota dokumentalistatik urrundu nahi dugula azpimarratzeko.

Aktore talde sendo bat hautatu dugu, proposamen honek eskatzen dituen disziplina guztietan trebeak direnak: antzezle dramatikoak dira, baina komiko bikainak ere, baita kantari eta dantzariak.

Gainera, zuzenean joko duten musikariak egongo dira. Produkzio parametroen arabera, bi edo hiru musikari agertuko dira zuzenean. Piano jole-antzezle bat, **Adrian Garcia de los Ojos**, ikuskizunaren musikaren egilea ere izango dena, eta beste musikari polibalentea, seguruenik **Maria Arriaga**. Biok egin dute lan elkarrekin jada, Tartean-en musikal batean: "Ez Dok Hiru".

Eskenografia eta jantziaren diseinurako, **Ikerne Gimenez** eskenografoarekin kontaktuko dugu.

FITXA ARTÍSTIKA ETA KONTAKTUA

Dramaturgia: Patxo Telleria

Zuzendaritza: Patxo Telleria

Aktoreak: Olatz Ganboa, Ylenia Baglietto eta Getari Etxegarai

Musikaria: Adrián Garcia de los Ojos

Jantziak eta Eszenografia: Ikerne Giménez

Musika egilea: Adrián Garcia de los Ojos

Argiztapena: David Rodríguez

Diseinu grafikoa: Paradox

Ekoizpena: TARTEAN Teatroa

Ekoizpen Exekutiboa: Pio Ortiz de Pinedo y Myriam Garzia

Banaketa: Myriam Garzia

Tel. (0034) 688 617 712 | tartean@tartean.com

Ekoizpena: Pio Ortiz de Pinedo

Tel (0034) 669 266 146 | tartean@tartean.com